CUARTO.- Requerir a la concesionaria que abone al Ayuntamiento de Tolosa, en el plazo de 10 días desde la notificación correspondiente, las facturas correspondientes a los estudios de las cuentas de explotación realizados por la empresa BETEAN AUDITORIA, que asciende a la cantidad total de 6.500 euros (IVA no incluido).

QUINTO.- Dado lo anterior, incoar la liquidación del contrato y proceder, una vez abonadas al Ayuntamiento las cantidades indicadas en los dos puntos anteriores, a la devolución de la garantía definitiva una vez transcurrido los plazos oportunos, conforme a lo previsto en la LCSP.

SEXTO.- Conceder a la mercantil BPXPORT XXI, S.L.U. un plazo de 10 días hábiles, contados a partir del siguiente al de recepción de la notificación correspondiente, para que alegue los documentos y justificaciones que estime pertinentes. Si antes de la finalización del plazo, la interesada manifestara su voluntad de no presentar nuevas alegaciones o documentos o justificaciones, se entenderá realizado el trámite.

El resultado de la votación del Pleno de la Corporación ha sido el siguiente:

**Votos a favor:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi eta Miren Garbiñe Marzol Ormazabal.



**Aurkako botoak:** Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

**Votos en contra:** Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez y Jose Maria Villanueva Telleria.

Bozketa egin ondoren, berdinketa gertatu da aldeko 8 botorekin eta aurkako 8 botorekin. Berdinketa horrek bere horretan jarraitzen duenez, alkateak **kalitatezko botoa** erabili du.

Efectuada la votación, se produce un empate con 8 votos a favor y 8 votos en contra. Al persistir dicho empate, el alcalde hace uso de su **voto de calidad**.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du BPXport XXI, S.L.U. merkataritza-sozietatearen 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietako diru-sarreraren eta gastuen kontuen azterketa jasotzen duten txostenen irizpena. Ekitaldi horietako kanon aldakorra likidatzea, eta kontratuaren likidazioari hasiera ematea.

Por lo tanto, el Pleno de la Corporación, por mayoría, ha aprobado el dictamen de los informes que recogen el examen de las cuentas de ingresos y gastos de la mercantil BPXport XXI, S.L.U. relativos a los ejercicios 2022, 2023 y 2024. Liquidación del canon variable de los citados ejercicios, e incoación de la liquidación del contrato.

**3. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, UZTURRE ASISTENTZIA GUNEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUEN PREZIOAK EGUNERATZEKO IRIZPENA.**

**PUNTO 3. APROBAR, EN SU CASO, EL DICTAMEN DE ACTUALIZACIÓN DE PRECIOS DE LOS SERVICIOS PRESTADOS POR EL COMPLEJO ASISTENCIAL UZTURRE.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2026ko martxoaren 18ko irizpena.

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito de trabajo de Organización de 18 de marzo de 2026.

2026ko martxoaren 4an Gizarte Zerbitzuak Uzturre asistentzia guneak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak eguneratzeko txostena egiten du, ondoren hau esaten du hitzez hitz:

“ IKUSIRIK

*Lehen.- Tolosako Udaleko erregistroan, 2026ko otsailaren 19an, 2026/2550 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Uzturre Asistentzia Guneak, aurkeztu duela bere proposamena eskaintzen dituen prezioa eguneratzeko.*



*Bigarrena.- Orokorrean, proposatzen duena da 2025 urterako Udal honek onartutako prezioei urteko IPC akumulatuaren portzentajea gehitzea da, hau da, %2,9.*

### KONTUAN HARTURIK

*Lehena.- Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren bian, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, erabaki zuela Tolosako Alondegi plazan zentro gerontologikoa eta aparkalekua, eguneko zentroa eta adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuak egiteko eta ustiatzeko emakidaren kontratuan, Uzturre Asistentzia Gunean eskaintzen diren zerbitzuen prezioen onarpena eguneratzeko erabiliko den irizpidea finkatzea (2021COBR0001). Hain zuzen ere, honela zehaztu zen irizpide hori:*

*«Bigarrena.- Onartzea Uzturre Asistentzia Gunean eskaintzen diren zerbitzuen prezioen onarpena eguneratzeko erabiliko den adierazlea honakoa izatea: Euskadiko KPlaren urteko akumulatua, urtarrilean argitaratzen dena. Ondorioz, hurrengo urteetan prezioen eguneratzea urtero egingo da, lehen hiru hilekoan, eta erabakia Ohiko Osoko Bilkuran onartu ondorengo hilabetearen lehen egunetik aplikatuko du Uzturre Asistentzia Guneak. Alegia, ondorengo urteetan, apirilaren 1ean hasiko dira aplikatzen prezio berriak.»*

*Bigarrena.- Aztertu da Uzturre Asistentzia Guneak egindako proposamena eta egiaztatu da prezioak eguneratzeko erabilitako adierazlea Euskadiko KPlaren urteko akumulatua dela (%2,9).*

*Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneak diren zerbitzuen prezioak, hain zuzen ere, egoitza zerbitzuarenak, eguneko zerbitzuarenak, eta nahasmendu mentalaren unitateko zerbitzuarenak ere proposatzen dira. Horietan erakundeak proposatzen duen irizpidea bera da, baina kontuan hartu behar da emakidaren kontratuaren oinarrietan bete beharreko beste irizpide bat dagoela:*

*«plaza pribatuen prezioa izango da Aldundiak itundutako prezioari %10a erantsita».*

*Gaur egun, oraindik ez da jaso 2026rako Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako agindurik, zeinaren bidez argitu beharko litzatekeen 2026 urtean aplikatu beharreko plaza kontzertatuaren prezioen zenbatekoa. Egiaztapena egiteko erabili den oinarria da 2025 urterako erakunde horrek erabakitako Erregimen ekonomikoaren agiria (2026ko urtarrilaren 29an sinatua izan zena), eta egiaztatu da 2026 urterako proposatutako prezio pribatuek ez dutela gainditzen 2025erako ezarritako itundutako zerbitzuen prezioari %10eko erantsiarekin osatzen duen muga.*

*Hori guztia kontuan izanda, txosten honen bidez **proposatzen da:***

**LEHENA:** *Onartzea Uzturre Asistentzia Guneak aurkeztutako prezioak eguneratzeko proposamena, zeinaren bidez 2026ko apirilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko prezioak zehazten dituen.”*

Diruzaintza sailean Euskadiko KPlaren urteko metatua egiaztatu da:

2025eko abenduaren 31n % 2,90

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2026ko martxoaren 18an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen.

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Josune Sanz Vidal, Ander Figuerido Zubiria, eta Kristina Pelaez Errazkin.

Abstentzioak: Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

### IRIZPENA

**Lehenengoa.-** Onartzea Uzturre Asistentzia Guneak aurkeztutako prezioak eguneratzeko proposamena, zeinaren bidez 2026ko apirilaren 1etik aurrerako prezioak zehazten diren.

<b>UZTURRE ASISTENTZIA GUNEA. ZERBITZU OSAGARRIEN TARIFAK EGUNERATZEA.</b>				
COMPLEJO ASISTENCIAL UZTURRE. ACTUALIZACION TARIFAS SERVICIOS COMPLEMENTARIOS				
<b>TOLOSAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE TOLOSA</b>				<b>01/04/2026</b>
<b>B. Udaleko Tarifak / Tarifa Ayuntamiento</b>				<b>IPC PAIS VASCO</b>
<b>TARIFAS AYUNTAMIENTO DE TOLOSA</b>	<b>CON IVA INCLUIDO</b>		<b>AÑO 2025</b>	<b>2,90%</b> <b>AÑO 2026</b>
<b>1. Tarifas Diputacion Foral Gipuzkoa</b>				
Autónomo concertada	4%	€/día	78,81.€/día	-
Dependiente concertada	4%	€/día	95,60.€/día	-
Gran Dependiente concertada	4%	€/día	119,90.€/día	-
Psicogeriatrico concertada	4%	€/día	128,15.€/día	-
Autónomo privada	4%	€/día	<b>82,74€ / día</b>	<b>85€ / día</b>
Dependiente privada	4%	€/día	<b>100,32€ / día</b>	<b>105€ / día</b>
Gran Dependiente privada	4%	€/día	<b>120,18€ / día</b>	<b>125€ / día</b>

ESKU94f02b91-8482-411a-b959-d92f8be6829



<b>2.- (UNIDAD TRASTORNO MENTAL) (diputación)</b>				
Residente unidad residencial transtorno mental	4%	€/día	141,40 € / día	146,65 € / día

<b>3.- CENTRO DE DÍA (Diputación)</b>				
Asistencia día laborable concertada	4%	€/día	61,99.€/día	-
Asistencia festivo y f/s concertada	4%	€/día	70,11.€/día	-
Asistencia día laborable privada	4%	€/día	<b>50.€/día</b>	<b>55.€/día</b>
Asistencia festivo y f/s privada	4%	€/día	<b>50.€/día</b>	<b>55.€/día</b>
Transporte día laborable concertado	4%	€/día	20,57.€/día	-
Transporte día festivo o f/s concertado	4%	€/día	23,48.€/día	-
Transporte día laborable privado	4%		0	0
Transporte día festivo o f/s privado	4%		0	0

<b>4.- ETXEBIZITZAK /APARTAMENTOS</b>				
Norberaren arropa garbitzeko zerbitzua / Servicio de limpieza de ropa personal	%10	€/mes	<b>106,73</b>	<b>109,82</b>
Apartamentua garbitzeko zerbitzua [1] / Servicio de limpieza de apartamento[1]	%10	€/mes	<b>213,45</b>	<b>219,64</b>
<u>Zainketa pertsonalen zerbitzua lanegunetan/</u> Servicio cuidados personales laborables	%10	€/hora	<b>26,92</b>	<b>27,70</b>
<u>Zainketa pertsonales zerbitzua jaiegunetan /</u> Servicio cuidados personales festivo-f/s	%10	€/hora	<b>32,43</b>	<b>33,37</b>
Etxebizitzaren alokairua/ Alquiler apartamento	<b>%10</b>	€/mes	<b>671,54</b>	<b>691,01</b>

<b>5.- ETXEBIZITZA KOMUNITARIOA / VIVIENDA COMUNITARIA</b>				
Alojamentu plaza okupatuan- eguna [4]/ Alojamiento plaza ocupada-día[4]	%10	€/día	<b>24,60</b>	<b>25,31</b>
Alojamentu plaza okupatuan- hilabetea/ Alojamiento plaza ocupada-mes	%10	€/mes	<b>748,15</b>	<b>769,85</b>
Alojamentu plaza hutsean- eguna /Alojamiento plaza vacía-día	%10	€/día	<b>12,30</b>	<b>12,66</b>
Alojamentu plaza hutsean- hilabetea/ Alojamiento plaza vacía-mes	%10	€/mes	<b>374,08</b>	<b>384,93</b>
Manutentzioa-eguna / Manutención-día	%10	€/día	<b>13,48</b>	<b>13,88</b>
Manutentzioa-hilabetea / Manutención-mes	%10	€/mes	<b>410,90</b>	<b>422,82</b>

ESKU94f02b91-8482-411a-b959-d92f8bebe6829



<b>6.- ERABILERA ANITZEKO LOKALAK / LOCALES POLIVALENTES</b>				
Hileko alokairua/ Alquiler mensual	<b>%10</b>	€/mes	<b>259,69</b>	<b>267,22</b>
<b>7.- 60 URTETIK GORAKOENTZAKO JANTOKI SOZIALA [5]/ COMEDOR SOCIAL MAYORES DE 60 AÑOS[5]</b>				
Janaria lanegunetan/ Comida laborable	%10	€	<b>8,97</b>	<b>9,23</b>
Janaria jaiegun edo asteburuetan/ Comida festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	<b>11,16</b>	<b>11,49</b>
Afaria lanegunetan/ Cena laborable	%10	€	<b>7,46</b>	<b>7,68</b>
Afaria jaiegun edo asteburuetan/ Cena festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	<b>9,34</b>	<b>9,61</b>
Dieta partikularizatua / Dieta particularizada				
<b>8.- 60 URTETIK BEHERAKOENTZAKO JANTOKI SOZIALA [6]/ COMEDOR SOCIAL MENORES DE 60 AÑOS[6]</b>				
Janaria lanegunetan/ Comida laborable	%10	€	<b>13,42</b>	<b>13,81</b>
Janaria jaiegun edo asteburuetan/ Comida festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	<b>15,68</b>	<b>16,13</b>
Afaria lanegunetan/ Cena laborable	%10	€	<b>11,16</b>	<b>11,49</b>
Afaria jaiegun edo asteburuetan/ Cena festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	<b>13,11</b>	<b>13,49</b>
<b>9.- BESTE ZERBITZU BATZUK/ OTROS SERVICIOS</b>				
<b>A.- FISIOTERAPEUTA[7]</b>				
Zerbitzua/ Servicio	%4	€	<b>25,32</b>	<b>26,06</b>
<b>B.- PODOLOGÍA[8]</b>				
1. kontsulta/ 1ª Consulta	%4	€	<b>14,06</b>	<b>14,47</b>
Kiropedia kontsulta/ Consulta de quiropedia/consulta	%4	€	<b>14,06</b>	<b>14,47</b>
Sendaketa podologikoa/ Cura podológica/consulta	%4	€	<b>15,68</b>	<b>16,13</b>
Errehabilitazio odolgabea azazkal haragitua/kons./ Rehabilitación incruenta uña encarnada/cons.	%4	€	<b>105,14</b>	<b>108,19</b>
Azazkal haragitua/kontsulta/ Uña encarnada/consulta	%4	€	<b>52,60</b>	<b>54,13</b>
Ultzerak/kontsulta/ Ulceraciones/consulta	%4	€	<b>31,36</b>	<b>32,27</b>
Ultzera sendaketak/konts/ Curas ulceraciones/consulta	%4	€	<b>15,69</b>	<b>16,15</b>



<b>C.- ILE- APAINKETA (BEZAREN IGOERA) / PELUQUERÍA</b> (SUBIDA IVA)				
<b>Gizonezkoen ilea moztea / Corte pelo varones</b>	%21	€	<b>11,16</b>	<b>11,49</b>
<b>Emakumezkoen ilea moztea/ Corte de pelo mujeres</b>	%21	€	<b>13,17</b>	<b>13,55</b>
<b>Tindua/ Tinte</b>	%21	€	<b>30,37</b>	<b>31,25</b>
<b>Iraunkorra/ Permanente</b>	%21	€	<b>32,00</b>	<b>32,92</b>
<b>10.- EGUNEKO ARRETA ZENTROA/ CENTRO DE ATENCIÓN DIURNA</b>				
<b>A modalitatearen “Egunero saioak” saio bakoitza/ Cada sesión de la modalidad A “Sesiones diarias”</b>	%10	€/día	<b>140,72</b>	<b>144,81</b>
<b>B modalitatearen “Astean bi saio” saio bakoitza/ Cada sesión de la modalidad B “Dos sesiones semanales”</b>	%10	€/día	<b>146,35</b>	<b>150,60</b>
<b>C modalitatearen “Astean saio bat (zerbitzu descentralizatu)” / Cada sesión de la modalidad C “Una sesión semanal (servicio descentralizado)”</b>	%10	€/día	<b>168,87</b>	<b>173,77</b>

**Bigarrena.-** Ohartaraztea eskatzaileari Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren zerbitzuen prezioak eguneratzerakoan, hau da, adinekoen egoitza zerbitzuarenak, eguneko zerbitzuarenak, eta nahasmendu mentalaren unitateko zerbitzuaren prezioak eguneratzerakoan, ezinbestean errespetatu behar duten irizpidea ondokoa dela: *«plaza pribatuen prezioa izango da Aldundiak itundutako prezioari %10a erantsita».*

Ondorioz, erabaki honekin zerbitzu horien prezioak eguneratzeko proposamena onartzen bada ere, Aldundiak zerbitzu horiek ituntzeko ezartzen duen prezioa argitaratzearekin batera, berrikusi beharko du Uzturre Asistentzia Guneak atal honetan onartutakoa, goian aipatzen den irizpidea betetzen dela bermatzeko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak eguneratzeko irizpena.



**4. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO UDALEKO 2026-2028KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETARAKO IRIZPENA.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorren 2026ko martxoaren 18ko irizpena.

**PUNTO 4. APROBAR, EN SU CASO, EL DICTAMEN PARA LA MODIFICACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES DE 2026-2028 DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA.**

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito de trabajo de Organización de 18 de marzo de 2026.

**IKUSIRIK**

**Lehena.-** 2026-2028 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 7.2 eta 7.3 dirulaguntza lerroak aldatzeko proposamena jaso dela Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azokak sailetik.

**Bigarrena.-** Ondorengo era honetan daudela onartuta indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aipatutako bi dirulaguntza lerroak:

Dirulaguntza lerroa: 7.2.- Merkataritza biziberritzea (Berriz Tolosa)

Eskumen arloa	Merkataritza
Sektore hartzaileak	Tolosako saltokiak.
Helburuak	Saltokien eskualdaketa bermatzea.
Lortu nahi diren ondorioak	Saltokien jarraipena.
Egikaritze epea	Zehaztu gabe.
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantzazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Zinegotzi delegatuak deialdia onartuko du. Behin eskaerak aurkeztu eta aztertutakoan, Alkatetzaren dekretu bidez ebatziko da. Dirulaguntzako jardueraren justifikazioa, lokalen alokairu edo erosketa, dirulaguntzaren oinarritan zehaztutako epean aurkeztuko da.
Jarraipena eta ebaluazioa	- Eskatzaile kopurua. - Onuradun kopurua. - Ebatzitako dirulaguntza kopurua batez beste.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1100.471.02.431.00	TOLOSAKO SALTOKIAK	Merkataritza biziberritzea	27.100€	Konkurrentzia	81.300 €

ESKU94f02b91-8482-411a-b959-d92f8bebe6829



**Dirulaguntza lerroa: 7.3. Negozio berriak sustatzeko laguntzak (EKIN)**

Eskumen arloa	Merkataritza
Sektore hartzaileak	Tolosan kokatuko diren enpresa-ekimen berriak
Helburuak	Hutsik dauden lokaletan kokatuko diren enpresa ekimen-berriei dirulaguntzak. Honako jardunak diruz lagunduko dira: - Alokairurako dirulaguntzak - Lokala birgaitu edo egokitzeko dirulaguntzak
Lortu nahi diren ondorioak	Negozio berriak sustatzea
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Udalbatzak ordenantzari hasierako onarpena eman ostean, buletinean eta iragarki taulan argitaratuko da. Jendaurrean jarri eta alegaziorik egon ezean, behin betiko onespina emango zaio. Horren ostean, zinegotzi delegatuak deialdia onartuko du. Eskerak forman aurkeztuz gero, zinegotzi delegatuaren dekretuaren bidez ebatziko da dirulaguntza.
Jarraipena eta ebaluazioa	- Aurkeztutako negozio-eredu kopurua. - Diruzlagundutako negozio-eredu kopurua. - Banatutako dirulaguntza kopurua.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1100.471.01.430.00	Negozio berriak	Tokiko ekonomia sustatzea eta negozio berriei laguntzea: alokairurako dirulaguntza	60.000 €	Konkurrentzia	180.000 €
1100.771.01.430.00	Negozio berriak	Tokiko ekonomia sustatzea eta negozio berriei laguntzea: hutsik dagoen lokala egokitzeko dirulaguntza	20.000 €	Konkurrentzia	60.000 €

**Hirugarrena.-** Horiz koloreztatutako aldaketak onartu ondoren, ondorengo moduan onartzea proposatzen dela:

**Dirulaguntza lerroa: 7.2. Merkataritza biziberritzea (Berriz Tolosa)**

Eskumen arloa	Merkataritza
Sektore hartzaileak	Tolosako saltokiak
Helburuak	Saltokien eskualdaketa bermatzea
Lortu nahi diren ondorioak	Saltokien jarraipena
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziazioa funts propioekin egiten da.



Ekintza Plana	Zinegotzi delegatuak deialdia onartuko du. Behin eskaerak aurkeztu eta aztertutakoan, zinegotzi delegatuaren dekretu bidez ebatziko da. Dirulaguntzako jardueraren justifikazioa, lokalen alokairu edo erosketa, dirulaguntzaren oinarrietan zehaztutako epean aurkeztuko da.
Jarraipena eta ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskatzaile kopurua.</li> <li>- Onuradun kopurua.</li> <li>- Ebatzitako dirulaguntza kopurua.</li> </ul>

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1100.471.02.431.00	Tolosako saltokiak	Alokairurako laguntza	25.000€	Konkurrentzia	75.000€
1100.771.01.431.00	Tolosako saltokiak	Erosketarako laguntza	20.000€	Konkurrentzia	60.000€

**Dirulaguntza lerroa: 7.3. Negozio berriak sustatzeko laguntzak (EKIN)**

Eskumen arloa	Merkataritza
Sektore hartzaileak	Tolosan kokatuko diren enpresa-ekimen berriak
Helburuak	Hutsik dauden lokaletan kokatuko diren enpresa-ekimen berriei dirulaguntzak ematea. Honako jardunak lagunduko dira diruz: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Alokairuak.</li> <li>- Lokalen erosketa.</li> <li>- Lokalen birgaitze eta egokitze lanak.</li> </ul>
Lortu nahi diren ondorioak	Negozio berriak sustatzea
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantzazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Zinegotzi delegatuak deialdia onartuko du. Behin eskaerak aurkeztu eta aztertutakoan, zinegotzi delegatuaren dekretu bidez ebatziko da. Dirulaguntzako jardueraren justifikazioa, lokalen alokairu, erosketa edo birgaitze/egokitzea dirulaguntzaren oinarrietan zehaztutako epean aurkeztuko da.
Jarraipena eta ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskatzaile kopurua.</li> <li>- Onuradun kopurua.</li> <li>- Ebatzitako dirulaguntza kopurua.</li> </ul>

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1100.471.01.431.00	Tolosako negozio berriak	Alokairurako laguntza	57.000€	Konkurrentzia	177.000€
1100.771.01.431.00	Tolosako negozio berriak	Erosketarako edota birgaitze/egokitze laguntza	20.000€	Konkurrentzia	60.000€

ESKU94f02b91-8482-411a-b959-d92f8be6829

## KONTUAN HARTURIK

**Lehena.**-Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.artikuluari adierazten den moduan, Administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten edozein erakundek, alde aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horiek aplikatzearekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

Dirulaguntza bakoitzaren oinarri arautzaileek dirulaguntzen plan estrategikoari egingo diote erreferentzia, eta adieraziko dute nola laguntzen duten helburuak lortzen; bestela, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa dirulaguntza berria ezartzea, Planean aurreikusi ez bada ere, eta nola eragiten dion hori betetzeari.

**Bigarrena.**-Indar arautzaileek ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Hirugarrena.**-Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

**Laugarrena.**-Proposatutako aldaketak egitea beharrezkoa litzateke 2026 urteko diru-laguntzen oinarriak eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bat etor daitezzen.

Proposamena bozkatu egin da, ondorengo emaitzarekin:

- **Aldeko botoak:** Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.**-2026-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoko 7.2 eta 7.3 dirulaguntza lerroak aldatzea eta ondorengo era honetan uztea:

Dirulaguntza lerroa: 7.2. Merkataritza biziberritzea (Berriz Tolosa)

Eskumen arloa	Merkataritza
Sektore hartzaileak	Tolosako saltokiak
Helburuak	Saltokien eskualdaketa bermatzea
Lortu nahi diren ondorioak	Saltokien jarraipena
Egikaritze epea	Zehaztu gabe



Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantzazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Zinegotzi delegatuak deialdia onartuko du. Behin eskaerak aurkeztu eta aztertutakoan, zinegotzi delegatuaren dekretu bidez ebatziko da. Dirulaguntzako jardueraren justifikazioa, lokalen alokairu edo erosketa, dirulaguntzaren oinarrietan zehaztutako epean aurkeztuko da.
Jarraipena eta ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskatzaile kopurua.</li> <li>- Onuradun kopurua.</li> <li>- Ebatzitako dirulaguntza kopurua.</li> </ul>

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1100.471.02.431.00	Tolosako saltokiak	Alokairurako laguntza	25.000€	Konkurrentzia	75.000€
1100.771.01.431.00	Tolosako saltokiak	Erosketarako laguntza	20.000€	Konkurrentzia	60.000€

Dirulaguntza lerroa: 7.3. Negozio berriak sustatzeko laguntzak (EKIN)

Eskumen arloa	Merkataritza
Sektore hartzaileak	Tolosan kokatuko diren enpresa-ekimen berriak
Helburuak	Hutsik dauden lokaletan kokatuko diren enpresa-ekimen berriei dirulaguntzak ematea. Honako jardunak lagunduko dira diruz: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Alokairuak.</li> <li>- Lokalen erosketa.</li> <li>- Lokalen birgaitze eta egokitze lanak.</li> </ul>
Lortu nahi diren ondorioak	Negozio berriak sustatzea
Egikaritze epea	Zehaztu gabe
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantzazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Zinegotzi delegatuak deialdia onartuko du. Behin eskaerak aurkeztu eta aztertutakoan, zinegotzi delegatuaren dekretu bidez ebatziko da. Dirulaguntzako jardueraren justifikazioa, lokalen alokairu, erosketa edo birgaitze/egokitzea dirulaguntzaren oinarrietan zehaztutako epean aurkeztuko da.
Jarraipena eta ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskatzaile kopurua.</li> <li>- Onuradun kopurua.</li> <li>- Ebatzitako dirulaguntza kopurua.</li> </ul>

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
1100.471.01.431.00	Tolosako negozio berriak	Alokairurako laguntza	57.000€	Konkurrentzia	177.000€



1100.771.01.431.00	Tolosako negozio berriak	Erosketarako edota birgaitze/egokitzeko laguntza	20.000€	Konkurrentzia	60.000€
--------------------	-----------------------------	--	---------	---------------	---------

**Bigarrena.-** Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako Udaleko 2026-2028ko dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketarako irizpena.

**5. PUNTUA. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO, 2026KO AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA ALDATZEKO IRIZPENARI.**

**PUNTO 5. APROBACIÓN INICIAL, EN SU CASO, DEL DICTAMEN DE MODIFICACIÓN DE LA NORMA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA DEL AÑO 2026.**

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2026ko martxoaren 18ko irizpena.

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito de trabajo de Organización de 18 de marzo de 2026.

**IKUSIRIK**

**Lehena.-** Kontu-hartzailatza eta Diruzaintza saileko zinegotzi delegatuak, 2026ko martxoaren 6ko probidentziaren bidez, Aurrekontua Gauzatzeko Araua aldatzeko espedienteari hasiera eman dio.

**Bigarrena.-** Aurrekontua Gauzatzeko Arauko kontratu txikien izapidetzearen inguruko 29.bis artikuluan zenbait aldaketa egitea proposatu da. Hain zuzen ere, gastu arruntetarako zein inbertsioetarako, 8.000,00 euro (BEZik gabe) gaintitzen dituzten gastuak kontratu txikien bidez izapidetzeko hiru aurrekontu eskatzeko betebeharra malgutzea proposatu da, neurri hori gomendio gisa ezarriz.



**Hirugarrena.-** Aldaketa egitearen arrazoia da arau horren aplikazio praktikoan zenbait zailtasun antzeman direla, bereziki udal zerbitzuen eguneroko funtzionamenduari dagokionez. Besteak beste: kontratazio-prozesua nabarmen luzatzea; premiazko edo ohiko zerbitzu eta horniduren kasuan udal jarduera moteldu eta atzeratzea; eta hornitzaile gutxi dauden merkatuetan hiru aurrekontu lortzea zaila izatea.

**Laugarrena.-** Udal Idazkariaren 2026ko martxoaren 12ko txosten juridikoa, aurrekontua betearazteko arauko 29.bis artikuluko zortzigarren atala honela aldatzearen aldekoa da:

- 3 aurrekontu eskatzeko derrigortasuna kentzea, gomendio bihurtuz.
- Esleipen- edo balorazio-irizpideei buruzko aipamena kentzea, zuzeneko esleipeneko kasuak direnez, lehiarik gabekoak ez baitira beharrezkoak. Hainbat esleipen-irizpide baloratu nahi izanez gero, ohiko edozein esleipen-prozeduratara jo ahal izango da, kontratu txikitara jo beharrean.

**Bosgarrena.-** Kontu-hartzaitzako 2026ko martxoaren 13ko txostena, 8.000,00 euro (BEZik gabe) gainditzen dituzten gastuak kontratu txikien bidez izapidetzeko hiru aurrekontu eskatzeko betebeharra mantentzearen aldekoa da, proposatutako aldaketa egitea zuzena bada ere.

## KONTUAN HARTURIK

**Lehena.-** Arautegi aplikagarria:

1. 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa
2. Tolosako Udaleko 2026 urteko Aurrekontua Gauzatzeko Araua
3. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena

**Bigarrena.-** Sektore Publikoko kontratazioari buruzko arautegiak ez duela hiru aurrekontu eskatzeko betebeharririk ezartzen.

**Hirugarrena.-** Proposatutako aldaketa egiteko Aurrekontu Orokorra Onartzeko jarraitzen den prozedura jarraitu beharko litzatekeela.

Proposamena bozkatu egin da, ondorengo emaitzarekin:

- **Aldeko botoak:** Cristina Pelaez Errazquin, Miren Yosune Sanz Vidal, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** 2026ko Aurrekontua Gauzatzeko Arauan, I. eranskinean jasotako aldaketak egiteari hasierako onarpena ematea.

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea hamabost egunetan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz gain Tolosako Udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena.-** Aurkezten diren erreklamazio eta iradokizunen berri ematea Udalaren Osoko Bilkurari, eta horiek behin betiko ebatziko dira. Aurkezten ez badira, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

**Bosgarrena.-** Behin betiko onartzeko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onespina eman dio 2026ko aurrekontua gauzatzeko araua aldatzeko irizpenari.



**6. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO,  
I. ERANSKINEAN ZERRENDATUTAKO  
INSTALAZIOAK, ERAIKUNTZAK ETA OBRAK  
INTERES BEREZIKOAK EDO UDAL-  
ONURAKOAK DIRELA DEKLARATZEA.**

**PUNTO 6. APROBAR, EN SU CASO, LA  
DECLARACIÓN DE INTERÉS ESPECIAL O DE  
UTILIDAD MUNICIPAL DE LAS  
INSTALACIONES, CONSTRUCCIONES Y  
OBRAS RELACIONADAS EN EL ANEXO I.**

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde  
Iraunkorraren 2026ko martxoaren 18ko irizpena.

Dictamen de la Comisión Informativa del Ámbito  
de trabajo del Territorio de 18 de marzo de 2026.

### IKUSIRIK

**LEHENA.-** Eranskinetan zerrendatzen diren interesdunek aurkeztutako eskaeren arabera, honako hau eskatzen dute: alde batetik, Osoko Bilkurak erabaki dezala eskatutako /komunikatutako eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikotzat edo udal-onurakotzat jotzea inguruabar sozialak, kulturalak, historiko-artistikoak edo enplegua sustatzekoak izateagatik; eta, bestetik, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren hobaria aitortzea, Tolosako Udalaren Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskaleko 10.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Interesdun bakoitzak irekitako espediente bakoitzean Hirigintzako dagokion teknikariaren txostena dago, eta bertan adierazten da aztertutako obra horrek hobaria jasotzeko Tolosako Udalaren Ordenantza Fiskalean zehaztutako baldintzak betetzen dituen ala ez, zerrendatzen den eranskinean jasotzen den bezala.

### KONTUAN HARTURIK

**LEHENA.-** Tolosako Udalaren Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskaleko 10.1 artikuluan honako hau jasotzen da:

«1.- Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak Udal Batzak izendatzen baditu, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak izateagatik ondorengo hoberiak aplikatuko dira:

a) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako zaharberitze obrak, zerga-kuotaren %95eko hobaria jasoko dute.

b) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako oin berriko eraikinen obrak, zerga-kuotaren %60eko hobaria jasoko dute.

c) Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, % 95eko hobaria izango dute.



- d) Alokabideren babesean Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren zaharberritze obrek, % 95eko hobaria izango dute.
- e) Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinak obrak % 80eko hobaria izango dute.
- f) Jarduera ekonomikoaren lotutako 200 metro karratu baina gutxiagoko lokaletan egindako obren kasuetan, 50.000 eurotik beherako aurrekontu materiala duten obretan % 95eko hobaria izango dute.
- g) Udalak onartua duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrendan egindako eraikuntza instalazio edo obrak, edota Udalez gairako administrazio eskudunek Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako ondasun eta elementuen zerrendan agertzen diren eraikinetan egindako obrak, %95ko hobaria izango dute.

Apartatu honetako bi hobari-kasu edo gehiago gertatzen badira, ehuneko handiena duen kontzeptuagatik soilik aplikatuko da hobaria>>.

**BIGARRENA.-** Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauak 5. artikuluan jasotzen duenez, udalerriek, beren ordenantza fiskaletan, zergaren kuotaren gaineko hobari hau arautu ahal izango dute:

<<1. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak arautu ahal izango dituzte beren ordenantza fiskaletan zerga kuotaren gainean:

a) 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

(...)>>.

Tolosako Udalak 2025eko martxoaren 27ko osoko bilkuran ordenantza fiskala aldatu eta hobari mota hori sartu du, eta, horren harira, honako organo honi dagokio arlo honetako onespina ematea: Udalbatza.

Beraz, udal-teknikari honek honako hau proposatzen du:

## IRIZPEN PROPOSAMENA

**LEHENA.-** DEKLARATZEA I. eranskinean zerrendatutako instalazioak, eraikuntzak eta obrak badirela INTERES BEREZIKOAK EDO UDAL-ONURAKOAK, Ordenantza Fiskalean tipifikatutako balizko kasuetako batean daudelako.

Subjektu pasibo zergadunei Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren gaineko HOBARIA AITORTZEA, mozkinaren arrazoia behar bezala justifikatuzat jotzen delako, Tolosako Udalaren Ordenantza Fiskalean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

Hala ere, Udalbatzak egoki deritzona erabakiko du.

**BIGARRENA.-** EZ DEKLARATZEA II. eranskinean zerrendatutako instalazioak, eraikuntzak eta obrak interes berezikotzat edo udal-onurakotzat, ez daudelako Ordenantza Fiskalean tipifikatutako kasuetan, eta eranskinean zerrendatutako kasuan kasuko arrazoiengatik.

Subjektu pasibo zergadunei Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren hobaria ukatzea, mozkinaren arrazoia ez delako behar bezala justifikatu, Tolosako Udalaren Ordenantza Fiskalean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

Hala ere, Udalbatzak egoki deritzona erabakiko du.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

**LAUGARRENA.-** Entzunaldia ematea interesdunari, egokituzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan 10 egun balioduneko epean.

### ERANSKINA I

**Instalazio, eraikuntza eta obra hauek interes eta udal-onura berezikotzat DEKLARATZEA, eta Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergaren hobaria AITORTZEA.**

Zk.	Espediente zk.	Interesduna (NAN zk.)	Obra mota / arrazoia	Hobariaren %
1	2026H3330025	M.C.V.L. (15154957G)	a	95%
2	2026H3330028	A.T.I.K. (72425525C)	f	95%
3	2026H3340004	INTENSIVO GIDARIAK (B72903115)	f	95%
4	2025H3340130	P.L.E. (15893427J)	a	95%
5	2026H3330041	E.D.B. (15221239T)	a	95%

## II. ERANSKINA

**Instalazio, eraikuntza eta obra hauek interes eta udal-onura berezikotzat EZ DEKLARATZEA, eta Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergaren hobaria UKATZEA.**

Zk.	Espediente zk.	Interesduna (NAN zk.)	Ukatzeko arrazoa
1	2026H3330023	M.I.G.L. (15948173L)	a) obra motako hobaria eskatu du baina, ez da dagokio kokapen geografikoagatik.
2	2026H3330031	M.R.L.L. (72430172K)	a) obra motako hobaria eskatu du baina, ez da dagokio kokapen geografikoagatik

Obra motak:

- Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako zaharberitze obra delako.
- Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako oin berriko eraikinen obra delako.
- Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obra delako.
- Alokabideren babesean Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren zaharberitze obra delako.
- Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinak obra direlako.
- Jarduera ekonomikoarekin lotutako 200 m<sup>2</sup> baino gutxiagoko lokaletan, 50.000 €tik beherako aurrekontua duten obra delako.
- Udalak onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuan edo Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako eraikinetan egindako obra delako.

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Lurraldeko Batzorde Informatiboak, 2026ko martxoaren 18n egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren ondoren emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Aitor Agirresarobe Murgi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** DEKLARATZEA I. eranskinean zerrendatutako instalazioak, eraikuntzak eta obrak badirela INTERES BEREZIKOAK EDO UDAL-ONURAKOAK, Ordenantza Fiskalean tipifikatutako balizko kasuetako batean daudelako.

Subjektu pasibo zergadunei Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren gaineko HOBARIA AITORTZEA, mozkinaren arrazoia behar bezala justifikatuzat jotzen delako, Tolosako Udalarer Ordenantza Fiskalean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

Hala ere, Udalbatzak egoki deritzona erabakiko du.

**BIGARRENA.-** EZ DEKLARATZEA II. eranskinean zerrendatutako instalazioak, eraikuntzak eta obrak interes berezikotzat edo udal-onurakotzat, ez daudelako Ordenantza Fiskalean tipifikatutako kasuetan eta eranskinean zerrendatutako kasuan kasuko arrazoiengatik.

Subjektu pasibo zergadunei Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren hobaria ukatzea mozkinaren arrazoia ez delako behar bezala justifikatu, Tolosako Udalaren Ordenantza Fiskalean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

Hala ere, Udalbatzak egoki deritzona erabakiko du.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

**LAUGARRENA.-** Entzunaldia ematea interesdunari, egokituzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzar 10 egun balioduneko epean.

## ERANSKINA I

**Instalazio, eraikuntza eta obra hauek interes eta udal-onura berezikotzat DEKLARATZEA, eta Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergaren hobaria AITORTZEA.**

Zk.	Espediente zk.	Interesduna (NAN zk.)	Obra mota / arrazoia	Hobariaren %
1	2026H3330025	M.C.V.L. (15154957G)	a	95%
2	2026H3330028	A.T.I.K. (72425525C)	f	95%
3	2026H3340004	INTENSIVO GIDARIAK (B72903115)	f	95%
4	2025H3340130	P.L.E. (15893427J)	a	95%
5	2026H3330041	E.D.B. (15221239T)	a	95%



## II. ERANSKINA

**Instalazio, eraikuntza eta obra hauek interes eta udal-onura berezikotzat EZ DEKLARATZEA, eta Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergaren hobaria UKATZEA.**

Zk.	Espediente zk.	Interesduna (NAN zk.)	Ukatzeko arrazoa
1	2026H3330023	M.I.G.L. (15948173L)	a) obra motako hobaria eskatu du baina, ez da dagokio kokapen geografikoagatik.
2	2026H3330031	M.R.L.L. (72430172K)	a) obra motako hobaria eskatu du baina, ez da dagokio kokapen geografikoagatik

Obra motak:

- Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako zaharberritze obra delako.
- Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako oin berriko eraikinen obra delako.
- Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obra delako.
- Alokabideren babesean Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren zaharberritze obra delako.
- Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinetakoa obra direlako.
- Jarduera ekonomikoarekin lotutako 200 m<sup>2</sup> baino gutxiagoko lokaletan, 50.000 €tik beherako aurrekontua duten obra delako.
- Udalak onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuan edo Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako eraikinetan egindako obra delako.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko Botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du I. eranskinean zerrendatutako instalazioak, eraikuntzak eta obrak interes berezikoak edo udal-onurakoak direla deklaratzeko.



**7. PUNTUA. BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO «24. IURRE» ESPARRUKO ALDAKETA PUNTUALA.**

**PUNTO 7. APROBAR DEFINITIVAMENTE, EN SU CASO, LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL ÁMBITO «24. IURRE» DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE TOLOSA.**
